

3.a

1.
JARDUERA
FITXA

ELKARLANEKO PROIEKTUA :
energiak ezagutu



EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Elkarlaneko tresnak	2 "badakit aipatzen"	- Elkarlanean, betebeharren arabera zerbitzuak hautatu eta erabili.
	3 "badakit egiten"	- Informazioa bilatu ekintza planoan, aldaketan jarraipenean eta eginbeharren plangintzan.
	3 "badakit egiten"	- Espazio digitala kudeatu, datuen egitura, memoria kapazitate, babes-kopia eta bertsoak, sarbide eskubideak dokumentu digitaletan.
Multimedia dokumentuak : izaera eta ezaugarriak	1 "badakit"	- Multimedia dokumentu mota ezberdinak desberdindu haien erabileraren arabera.
	2 "badakit aipatzen"	- Fitxategi formatu bat hautatu eta justifikatu multimedia dokumentu bat ekoizteko.
	3 "badakit egiten"	- Multimedia dokumentu baten gidoia egin, dokumentua bera sortu argitaratze proiektu bat gauzatzeko hedabide ezberdinen bidez.

HELBURUA :

Taldeka, energia iturri bati buruzko ikerketa lan bat egin eta lan hori ordenagailuz egindako diaporama baten bidez aurkeztu (*Energiak ezagutu* jarduera-fitxa ikus eginbeharra ongi zehazteko) linean den tresna berezi bat erabiliz : **Google Drive**.

Tresna honek halako aukerak emanen ditu :

- taldeka momentu berean ordenagailu ezberdinak erabiliz lan bera burutu
- solaskide ezberdinen artean komunikatu (txat bidez edo emailez)
- egindako lana sarean plazaratu

EGINBEHARRAK

- 1- Google aplikazioa ideki (Firefox nabigatzailearen bidez edo beste baten bidez)
- 2- Idekia den orrian, **Hasi saioa** botoian klikatu
- 3- **Erregistratu** botoian klikatu
- 4- Google kontua sortzeko agiria bete :

KASU !

Sortzen den kontua interneten bidez egina da, orduan, ez duzu datu pribaturik zabalduko, baizik eta irakasleak eskatutakoa soilik emanen ! Ez duzu sekulan zure baitarik bertze kontu edo zerbitzurik sortuko edo erabiliko ez bada aitzinetik zure irakaslearekin adostua izan ! Erne egon eta CNIL erakundeak plazaratutako aholkuak eta gomendioak segi itzazu ! (ikus emandako dokumentua edota web gune honetan dauden informazioak : <http://www.jeunes.cnil.fr>).

Ondoko orrialdean, kontua sortuko duzularik zehaztua den guzia zehatz-mehatz beteko duzu zure lankideekin.

Izena
 Lehena Azkena

Aukeratu erabiltzaile-izena
 @gmail.com
 Nahiago dut uneko helbide elektronikoa erabili

Sortu pasahitza

Berretsi pasahitza

Urtebetetzea
 Hilabetea Eguna Urtea

Sexua
 Zera naiz,

Telefono mugikorra
 +33

Uneko helbide elektronikoa

Frogatu ez zarela erroberta
Ferdinand *Ferdinand*

Idatzi bi hitzak:

Kokapena
 Frantzia (France)

Google Zerbitzu-baldintzak eta Pribatutasun-gidalerroak onartzen ditut.

Google-k nire kontuko informazioa erabil

Gisa honetan bete : lehena, nahi duzuen eta azkena : **xalbador** (adibidez : mattin - xalbador)

Helbide elektronikoa sortu **gmail** zerbitzariaren bidez aitzineko datuak erabiliz (adibidez : **mattin.xalbador@gmail.com**)

Pasa hitza sortu **8 karaktere alfa numeriko** (hizki + zifra) gutienik erabiliz eta hemen idatz :

.....

Sortegun faltsu bat eman (urte sinesgarri bat hauta hala ere !)

Nahi duzun sexua hauta !

Hemen ez duzu deusik emanen, ez telefonorik, ez eta helbide elektronikorik !

Laukian idatzia dena berridatz.

Google-en **zerbitzu-baldintzak** eta **pribatutasun gidalerroak** onartzen dituzula erakusteko, gelaxka markatu. Aldiz, ondokoa kendu.

Horra, zure kontua, lankideekin egina, sortua da : lana hasten ahal duzu **DRIVE** botoian sakatuz gero !

Lehen-lehenik :

Gmail posta-zerbitzua erabiliz, xehetasun guzi horiek bidali helbide honetara segurtatzeko kontua behar bezala sortua izan dela :

teknologia.kanbo@gmail.com


- lankideen izenak eta ikerketa lanaren izenburua
- hautatutako izenak kontua sortzean
- zehaztutako pasa hitza (laneko balioko du, ez da zure kontu pertsonala !)

Bigarrenik : eskatutako lana hasi jakinez egin beharra jadanik ukan duzun dokumentu batean zehaztua izan dela.

1- *Créer* botoian klikatu eta *Présentation* (aurkezpena) hautatu - izenburu bat eman sortzen duzuen aurkezpenari.

2- lan eremuko tresnak erabili diaporama sortzeko (hastapenean proposatua den eredu bat har dezakezue). Web gune honetan den laguntza (tutorial gisara) erabil dezakezue :

<http://www.telechargercours.com/general/tutoriel-logiciel-de-presentation-sur-google-documents/>



3- Aurkezpena egin baino lehen, ongi zehaztuko duzue zuen egin beharra : gaia, eman behar den informazioa, hots, diaporamaren **gidoia** edo **planoa** erabaki beharko duzue.

4- Diaporaman txertatuko dituzuen irudiak (interneten bidez hartuak) sarearen bidez gordeko dituzue horretarako sortuko duzuen karpetan (taldeari doakion karpetan emana eta izenburu honekin identifikatua : *Diaporama irudiak*).

5- Google Drive-n bidez **testu dokumentu** bat sortuko duzue zuen baliabideei buruzko xehetasunak zehazteko eskatu bezala (adibidez, erabilitako web guneen URL helbideak).

6- Lana bukatzerakoan, ez ahantz aldi guziz saioa hestea !

